

IRUNERO

28. zenb.

1997ko Uztaila





Plazan

Sanmartzialetako

Hara hor 19 kantinera panpoxak udaletxean hilaren 28an. Ibilbide guztia euri-pean egin bazuten ere, irrifartsu azaltzen zaikigu.



Federiko Garaialde diplomatiko irundarrak, sanmartzialetako agurra egiteko aukeratua izan zen. Udaletxetik irundarrei jai zoriontsuak opa zizkien hilaren 28an.



Ama Shantalengo kantinera aukeztua izan zen momentuan. Euriagatik puskatuak zituzten euriagatik, baina poztasanak irrifarrak eragin zituen.



San Pedro egunean kapitainei banderinak eta muni-zioa eman zitzaientzako momentua. Argazkian Beñardo Urtizberea komandantea eta kapitainak.



Alardearen Jenerala, Irungo alkatea eta zenbait zinegotzi atzean. Geroxeago jakin izan zen 12 boto eman zirela Alardea emakume eta gizonez osaturiko taldearekin egitearen kontra eta 15 alde.



argazki bilduma



Mezaren ondoren, zenbait pertsona txistuka aritu zen eta azkenean zinegotziek ez zuten Agurra dantzatu. Benetan lotsagarria han gertaturikoa.

San Pedro eguneko goiz hartan gatazta piztu zen. Argazkian ikus daitekeenez, Alardean emakumerik nahi ez zuen pertsona bat karraxi egin zuen bere udal batza-
ren eraakiaren ezadostasuna agertzeko.



San Pedro egunean Landetxako kantinera, Nerea Iriarte.



San Pedro egunean, arratsalde, Zalduneriako kantinera, Barbara Amadoz.



Jenerala, laguntzaileak eta zalduneria. San Pedro egu-
neko gau hartan Javier Vergara Alarde alternatiboan
deiturikoan parte hartuko zuela iragarri zuen.

Jeneral, Javier Vergara, errebista egitrakoan betilun azaldu zen. Hainbat konpainiek mesprezua egin zioten, emakume eta gizonez osaturiko konpainiarekin batera Alardea egi-
tea onartzen ez zutelako. Arratsalde hartan oraindik Jeneralak mandoen botazioa errespetatzen zuen





Emakumeak Urdanibia plazatik irten ziren San Martzial goizean. Inguruan talde hau babesteko kate bat osatu zen eta Udaltzaingoak aurrera egiten lagundu ziren. Istiluak izan ziren talde honen aurkako talde bat agertu zenean eta ez desfilatzeko.

Emakumeak San Juan plazara iritsi ziren oihu eta txaloen artean.



Emakume eta gizonen osaturiko konpainiak, Alarde ofizial bakarra izan zen. Bitartean Alarde alternatiboak beste ibilbide batetik zihoan.

Udaletxean emakumeek alkateari hiriko bandera eskatu zioten baina ukatu zitzaizkien alkateak Alardea bertan behera uztea erabaki zuelako, izan ere konpainia bakarrak osatzen baitzuelako Alardea.

Emakumeak kexu azaldu ziren eta alkatea, mandoak eta jeneralaren kontrako salaketa egin zuten ertzainetxean, eren ustez legez kanpoko manifestazio bat egiten ari zelako.





Geroxeago, Alarde altenartiboak bandera ofizialik ezean, beste batekin egin zuten desfilea. Argazkian Jose Antonio Apalategi, jeneral ohiak, Josean Etxeberriari, Alardearen ohiko bandera-eramaleari alegia, beste bandera bat eman zion.



Zabaltza plazan konpainia guztiak bildu ziren. San Martzial mendiko meza baino lehen alkateak Josen Etxeberriari hiriko bandera eman zion San Martziali egindako botoa bete zedin.



Zabaltza plazan, Javier Vergara aintzinako Gipuzkoako alkateak bezala jantzita, deskarga egiteko agindua eman zuen.



Hatxeroak Zabaltza plazatik irten zirenean.



Lapitzeko kantinera Zabaltza plazan.






Behobiako kantinera, Estibaliz Alvarez,
Colon ibilbidean.



Hatxeroen kaboia, Jontxu Ponte,
Iparralde hiribian.

Ama Shantalen konpainia,
Larretxipi kalean, goizeko Alarde
alternatiboa amaiatu ondoren.



Ama Shantalen konpainia deskargak egiten
Ana Agirresarobe kantineraren aurrean.